

« IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat San Frantzisko ikastetxe publikoko proiektua eta obrak egiteko gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrerak onestea San Frantzisko ikastetxe publikoko ekitaldi-aretoa erabat berritzeko proiektua eta obrak egiteko eta estalkia isolatzeko, guztira 200.000,00 euroko zenbatekoarekin, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen bidez finantzatuak, xehetasun hauekin bat:

Gastuak		Finantzazioa (diru-sarrera)	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
80/32320/632040 Ikastetxe Publikoak. Irakaskuntza Eraikinak konp. inb.	138.000,00 euro	20/75080 Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza kapitalerako	138.000,00 euro
80/32320/640000 Ikastetxe Publikoak, ikerketak eta proiektuak.	62.000,00 euro	20/75080 Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza kapitalerako	62.000,00 euro

2.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betetzeko indarreko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.»